

Getxo Bizia herri plataformak iraileko udal batzarrerako aurkezten duen MOZIOA

### **ZARAMA ETA IGERILEKUETAKO TASA BERRIAK EZEZTATZEAREN ALDE**

Zarama bilketagatiko tasari ezarri zaion %86ko igoera eta udal igerilekuetara sartzeko ezarri den euro bateko tasa berria bertan behera utzi daitezzen, milaka herritarren idatzizko eskaera jaso du Getxoko Udalak azken asteotan. Udan zehar antolaturiko sinadura bilketan Udal Tasen Gehiegizko Igoeren Aurkako Getxoztarrak herritar ekimenak modu argian azaldu die herritarrei zeintzu izan diren tasa hauek ezartzeko udalaren irizpideak, eta berezko iritzi eta argudioak emanez tasa igoera hauek ezeztatzearen aldeko sinadura eman dezaten hurbildu zatzaizkie getxoztarrei.

Bezeroei sinadura orriak euren saltokietan eskainiz, sinadura bilketan udalerriko dendari eta tabernari askok parte hartu dute, eta kalean ere sinadura bilketaren presentzia nabaria izan da herriko jaietan eta zenbait kultur ekitaldiren inguruan. Sinadura bilketak herritarren artean izan duen erantzunak argi adierazten du getxoztarren gehiengoak zarama tasari ezarri zaion %86ko igoera eta udal igerilekuetara sartzeko ezarri den euro bateko tasa berria ezeztatzearen alde dagoela.

Aldi berean, herritar guztiontzat eskuragarriak diren zerbitzu publikoen aldeko kontzientzia zabaldu egin da, oinarrizko zerbitzuak ezin baitira salgai gisa edo club pribatuetan bezala kudeatu.

Hiri hondakin solidoak inzineradora batean erre ordez irtenbide garbiak bilatu eta landu behar dira, eta bilketa selektiboetan herritarren parte hartzea bultzatzeko ezinbestekoa da %86ko igoera ezeztatzea.

**Honengatik guztiagatik Getxo Bizia herri plataformak, irailaren 30eko Osoko Bilkuran onar dezan, hurrengo akordio proposamena aurkezten dio Getxoko Udal Batzarrari:**

**Getxoko Udalak Zarama tasari ezarri zaion %86ko igoera eta udal igerilekuetara sartzeko ezarri den euro bateko tasa berria bertan behera uzteko erabakia hartzen du.**

**Aldi berean, herritar guztiontzat eskuragarriak diren tasa eta prezioen bitartez, udal zerbitzuen izaera soziala indartu egingo du.**